

**EHBILDUKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA**

Ekainaren 26an, Nazio Batuek Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna bultzatu zuten, António Guterres idazkari nagusiaren hitzekin bat: *“Torturazailen krimenak ez dira inola ere zigorgabe utzi behar, eta tortura ahalbidetzen duten sistemak eraldatu egin behar dira”*. Nazioarteko erakundeak gogorarazten du tortura Gizateriaren aurkako krimena dela, eta salatzen du *“biktimaren nortasuna suntsitzen duela eta gizaki ooren berezko duintasuna mespretxatzen duela”*.

Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 6an, egun hori ospatzearen aldeko jarrera hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari torturaren biktima guztiak berariaz aitortzeko ekitaldia egin zezala eskatu zion, beste biktima batzuei egiten dizkien ekintzen antzeko parametroetan ulertuta.

Torturatutako pertsonen kolektiboak askotan adierazi du, biktimizazio bikoitza jasaten dutela biktimarioei omenaldia eta aitortpena egiten zaizkienean.

Testuinguru horretan, Udal honek torturaren biktimen eskaera kolektiboa babestu behar duela uste du, beste biktima batzuen parean onarpena izan dezaten, nahiz eta sufrimendu hori sistematikoki ezkatatu den eta erakundeek bertan behera utzi dituzten erreklamazioak.

Horregatik, Oñatiko Udalbatzak hurrengo adosten du:

1. Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunerako Nazio Batuek egindako deiarekin bat etorriz, torturak Euskal Herriko indarkeria politikoaren testuinguruan duen sakontasuna eta hedadura berariaz onartzen du, zalantzarik gabeko txostenek zenbatutako 5.000 kasu baino gehiago daudela onartu ere.
2. Krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erazutako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen dugu.
3. Gorputz polizial desberdinen eskuetan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du.
4. Aitortza Instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzeko neurriak hartu daitezen.

